

Bueltan

**Maidier IANTZI
GOIENETXE**

Hamahiru urte nituela eza-gutu nuen. Berak hamabi zituen. Ongi konpondu ginen eta hurrengo udatan elkartzen segitu genuen. Ikusi bitartean, gutun pila bat idazten genizkion elkarri. Azaldu izan dut lerro hauetan zer ilusio egiten didan buzoia zabal-tzeak, eta nik uste hor dagoela emozio horren jatorria. Geroztik bakoitzak bere bidea egin dugu, urtebetetze oro zorionduz. Kandlei 26 aldiz putz egin ondok, orain kanpin berean topatuko gara. Ez dakit nolakoa izan den den topaketa: *deja vu* bat biziko dudan, lehen bezain ongi ulertuko dugun elkar... Bueltan kontatuko dizuet.

«Sanferminak, Berako bestak, Igan-tzikoak, eta akabo uda!», erraten dugu urtero, hamahiru urterekin bezala orain, bizitzaren zikloa zer ziztuan doan adierazteko. Behar ditugu egun seinalatuak. Bertzela dena berdina da, egun amaigabe baten gisakoa. Pandemian ikusi genuen.

Helduak aditzen ditut lehengo kon-tuak oroitzen: ez dakit nork goizetan anis txupitua edaten zuela eta 90 urte bizi izan zela, gaur egun aldiz dena dela debekua... Ondoan, futbolearen ari di-ra mutiko koskor batzuk –bai, anizta-sun gehiago ikusten hasi bagara ere, tamalez ohiko irudia da hori–. Gusta-tzen zait haiek entzutea. «Nire etxeko

arauak dira, ez zureak», dio batek. Afal-tzeko eta lotarako ordutegiez ari dira. Eta ni, zertan ari naiz? Agenda bete-tzen... Ezusteko batek geldiarazi eta lehentasunak argitzen dizkidan arte.

Gauzak hasi orduko bukatzen direla iruditzen zait, eta amaitu orduko pasa-tzen garela hurrengora. Are gehiago: ez dakit zenbat gauza egiten ditugu aldi berean, eta egitekorik topatzen ez du-gunean, urduri jartzen gara.

Abuztua bada nolabait “O denbora”, eta hori desio dut, izan dadila bizitzen ari garenaz jabetzeko aukera, lasai so-lastatzeko, sakontzeko, egin nahi du-gun aldaketaren bat egosteko. Gurpilak bueltak jarraituko du irailean. •

U23: kolore «ajatuak»

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Jose Luis Zumetak 1973an egin zuen zeramikazko margolan erraldoiak 50 urte bete ditu. Bide batez, esan nahi da bero txalotzekoa dela Usurbilgo Udalak Frankismoaren hondarrean euskal kulturaren alde egin zuen apustu izugarri hura. Geroztik, ehunka irudi eta kolore-joko biltzen dituen 16x9 me-troko obratzarra herriaren ikono bilakatatu da; baita mugaz gaindiko erreferente bitxi ere.

Aurrez aurre, Zumetak berak disei-natu zuen, eta gaur egun, ene begi biak begira izaten ditu sarritan Mikel Laboa plazatik; kolore eta irudien

amaraunean galtzen dira, eta halako batean, ausaz, laukitxo batean finka-tzen dira eta zoom-jolasa hasten da, inspirazio-bidaia harrigarrian.

Zuk ere egin dezakezu, noski, eta konturatuko zara zeharkatzen dituz-ten begien arabera, bidaia liluragarri horretan ezberdinak direla irudi-ko-loreak, pixel bakoitzak norberaren begiradatik esanahi propioa hartuko balu bezala. Ederra da bakoitzak bere-tik sentitzea, baina plazer apartekoa eragiten dit zuk sentitzen duzunare-kin alderatu eta nahasteak.

Baina Zumetaren margolan arran-ditsu hau osotasuna da; istorio kon-

taezinak multzo bakarrean bilduta. Lehen begiratuan pixelatutako nahas-te-borrastea iduri dezakeen arren, hurbiltzean, irudiek, aurpegiek eta koloreek zentzua hartzen dute norbe-raren eta egoeraren arabera. Kolore bizi eta indartsuko eszenak mugi-menduan topa ditzakegu han-he-menka. Horrelakoa irudikatu nahi dut gure jendartearen, gazte zein heldu; eta batez ere, ordezkari politikoaren.

U23-ko aukera “progresistak” ere, urrunetik, kolore anitzekoa dirudi, baina, Zumetaren koloreekin gerta-tzen denaren kontrara, hurbiletik, ko-lore ajatu bertsean urtzen dira... •